



GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA
IVAP

EBAZPENA, 2023ko apirilaren 18koa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako onartutako eta baztertutako azterketarigaien behin-behineko zerrenda behin betiko egiten duen ebazpenean antzemandako akatsak zuzentzen dituen.

2023ko martxoaren 6an IVAPeko zuzendariaren ebazpena argitaratu zen, zeinaren bidez hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako onartutako eta baztertutako azterketarigaien behin-behineko zerrenda behin betiko egiten zuen.

Ebazpen horrek zenbait egitezko akats ditu, eta zuzendu egin behar dira.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

EBATZI DUT

IVAPeko hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako onartutako eta baztertutako azterketarigaien behin-behineko zerrenda behin betiko egiten duen ebazpenean dauden akatsen zuzenketa egitea:

Lehenengoa. Behin-behineko zerrendan agertzen ez ziren azterketarigai biren eskabideak onartu behar dira, interesdunek paperez eta epean egin zutelako, baina eskabideak berandu heldu zirelako IVAPera:

NAN	Abizenak eta izena	Eskatutako HE	L.H.
7####174	PRE-----, AIT--	3.	Bizkaia
7####218	ZIO-----, NER--	3.	Bizkaia

Bigarrena. Zuzendu den ebazpenaren gainontzeko edukiari bere horretan eustea (2023ko apirilaren 4ko ebazpenaren bidez onartutako akatsen zuzenketa barne).

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 18a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria.
Maite Barruetabeña Zenekorta



DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
IVAP

RESOLUCIÓN de 18 de abril de 2023, de la directora del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se subsanan los errores detectados en la Resolución por la que se eleva a definitiva la lista provisional de personas aspirantes admitidas y excluidas de las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos.

El 6 de marzo de 2023 se publicó la Resolución de la directora del IVAP, por la que se elevó a definitiva la lista provisional de personas admitidas y excluidas de las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos.

Dicha Resolución contiene una serie de errores que deben ser subsanados.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 109.2 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, las Administraciones Públicas podrán rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho, o aritméticos existentes en sus actos.

RESUELVO

Corregir los errores en la Resolución por la que se hace definitiva la relación provisional de personas admitidas y excluidas de las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos:

Primero. Hay que admitir a dos personas aspirantes que no aparecen en la lista provisional de personas admitidas y excluidas, pero que hicieron su solicitud en papel y en el plazo estipulado, aunque no llegaron al IVAP a tiempo:

DNI	Apellidos y nombre	P. solicitado	T.H.
7####174	PRE-----, AIT--	3.	Bizkaia
7####218	ZIO-----, NER--	3.	Bizkaia

Segundo. Mantener el resto del contenido de la Resolución subsanada (incluida la corrección de errores aprobada mediante Resolución de 4 de abril de 2023).

Vitoria-Gasteiz, a 18 de abril de 2023.

La directora del Instituto Vasco de la Administración Pública.
Maite Barruetabeña Zenekorta